

XEDAPEN OROKORRAK

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

5733

EBAZPENA, 2024ko azaroaren 20koa, Proiektu Estrategikoen eta Industria Administrazioaren zuzendariarena, zeinaren bidez argitaratzen baita ibilgailuen azterketa teknikoaren zerbitzuaren emakidadunek 2025. urtean ezar ditzaketen tarifen zerrenda eguneratua eta kontsolidatua.

Apirilaren 4ko 60/2000 Dekretuan (martxoaren 16ko 48/2004 Dekretuaren bidez aldatu zen), ibilgailu automobilen segurtasunaren arloko aztertze-, izapidetze- eta kudeatze-eginkizunak zehazten dira, eta adierazten da ibilgailuen azterketa teknikoaren zerbitzua ematen duten entitateei esleitu ahal zaizkiela eginkizun horiek.

Apirilaren 4ko 60/2000 Dekretuaren 7. artikulua honako hau ezartzen du: «Emakidadunek burutu ditzaketen azterketen tarifak dekretu hau garatzeko emandako xedapenetan aurreikusitakoak dira. Tarifok urtero eguneratuko dira ibilgailuen azterketaren alorrean arauak izan dezaten bilakaeraren, aurrerapen teknologikoaren eta, hala behar bada, kontsumoko prezioen indizeak izan ditzan aldaketan arabera».

Proiektu Estrategikoen eta Industria Administrazioaren zuzendariaren 2024ko urtarrilaren 22ko Ebazpenak ezartzen du ibilgailuen azterketa teknikoaren zerbitzu-emakidadunek zer tarifa eska ditzaketen gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoan. Ebazpen hori 2024ko otsailaren 1eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen, 24. zenbakian, eta Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2024ko urtarrilaren 16ko Aginduaren babesean eman zen, zeinak aldatzen baitu Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren 2019ko abenduaren 9ko Agindua. 2024ko urtarrilaren 16ko Agindu horren bigarren xedapen gehigarriak hauxe dio: «Industria-administrazioaren arloko zuzendari eskudunari ahalmena ematen zaio Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan zerbitzu-emakidadunek ibilgailuen azterketa teknikoaren arloan aplikatu beharreko tarifen zerrenda eguneratua eta kontsolidatua argitaratuko duen ebazpena emateko».

Era berean, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren 2019ko abenduaren 9ko Aginduak honako hau aurreikusten du: «Ez bada horri buruzko agindurik ematen behar den urtean, orain eguneratutako tarifak urtero eguneratuko dira KPlaren gorabeheren arabera eta urte-tik urterako urriko indizea oinarritzat hartuta. Eguneratutako tarifak indarrean jarriko dira urtarrilaren 1etik aurrera». Bestalde, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2024ko urtarrilaren 16ko Aginduaren bidez, eginbidearen tarifa sartu zen.

Hori guztia aintzat hartuta, eta azaldutako zuzenbideko oinarriak eta oro har aplikatzekoak diren gainerako guztiak ikusita, Proiektu Estrategikoen eta Industria Administrazioaren zuzendariak, esleituak dituen eskumenak baliatuz, eta Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 68/2021 Dekretuaren 7. artikuluan oinarrituz, honako hau

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Ibilgailuen azterketa teknikoaren zerbitzuaren emakidadunek 2025. urterako eska ditzaketen tarifen zerrenda eguneratua eta kontsolidatua argitaratzea.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu dadila agintzea.

2024ko abenduaren 16a, astelehena

Ebazpen honek ez du administrazio-bidea amaitzen, eta, beronen aurka, gora jotzeko erre-kurtsoa jar dakioko Industriako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita; hori guztia, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea-ren urriaren 1eko 39/2015 Legearen 122. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko azaroaren 20a.

Proiektu Estrategikoen eta Industria Administrazioaren zuzendaria,
ZIGOR URQUIAGA URQUIZA.

2024ko abenduaren 16a, astelehena

I. ERANSKINA
ALDIZKAKO AZTERKETEN TARIFAK

Ibilgailu mota	Dieseldunen tarifa		Gasolinadunen, hibridoen eta gainerakoen tarifa		Elektrikoaren tarifa	
	Prezioa (eurotan)	Prezioa % 21eko BEZa barne (eurotan)	Prezioa (eurotan)	Prezioa % 21eko BEZa barne (eurotan)	Prezioa (eurotan)	Prezioa % 21eko BEZa barne (eurotan)
L L ibilgailuak, behean aipaturakoak izan ezik L5e-B, L6e-B, L7e-A2, L7e-B2 y L7e-C (kuatriziklo kabinadunak eta antzekoak)	24,24	29,33	24,24	29,33	21,28	25,74
	46,29	56,01	44,32	53,63	42,55	51,49
	46,29	56,01	44,32	53,63	42,55	51,49
M M2, M3	67,37	81,52	66,19	80,09	64,42	77,95
	46,29	56,01	44,32	53,63	42,55	51,49
N N2, N3	67,37	81,52	66,19	80,09	64,42	77,95
	41,36	50,05	0,00	0,00	0,00	0,00
T eta nekazaritzako beste batzuk.	37,16	44,96	0,00	0,00	0,00	0,00
Obra eta zerbitzuetarako ibilgailu bereziak eta makina autopropulsatuak.	67,37	81,52	66,19	80,09	64,42	77,95
Zirku-makinatarako edo aisialdiko azoka ibiltarietarako ibilgailu egokituak eta transformazio-estazio mugikorak.	67,37	81,52	66,19	80,09	64,42	77,95

Oharra: Trafikoko Buruzagitza Nagusiaren Erregistroan ibilgailuen azterketa teknikoaren emaitza idazteagatik tasa gehituko zaie tarifa horiei, azterketa derrigorrezkoa denean.

II. ERANSKINA

ERREFORMEN TARIFAK

Eranskin honetan ezartzen den erreformen tarifari III. eranskinean datorren izapidetze-tarifa ere aplikatuko zaio, indarrean dagoen Ibilgailu Erreformen Eskuliburuan aipatutako «erreforma-kode» bakoitzeko (866/2010 Dekretuan jasotzen da eskuliburu hori).

Erreforma batean ibilgailuaren masa edo ardatzen arteko masa-banaketa aldatzen bada, pisatze-tarifa aplikatuko da, dagokion azterketa teknikoaren tarifaz gain. Pisatze-tarifa, hala badagokio, behin baino ez da aplikatuko, nahiz eta aldi berean egiten diren erreforma batek baino gehiagok behar izan pisatze-eragiketa hori.

Erreforma izapidetzeko ezinbestekoa denean proiektua aurkeztea, proiektua berrikusteko tarifa gehituko da.

	Dieseldunen tarifa		Gasolinadunen, hibridoen eta gainerakoek tarifa		Elektrikoen tarifa	
	Prezioa (eurotan)	Prezioa % 21eko BEZa barne (eurotan)	Prezioa (eurotan)	Prezioa % 21eko BEZa barne (eurotan)	Prezioa (eurotan)	Prezioa % 21eko BEZa barne (eurotan)
Erreformaren tarifa	47,28	57,20	47,28	57,20	47,28	57,20
Proiektua berrikustea	23,64	28,60	23,64	28,60	23,64	28,60

III. ERANSKINA

BESTELAKO AZTERKETA ETA ZERBITZUEN TARIFAK

	Tarifa	
	Prezioa (eurotan)	Prezioa % 21eko BEZa barne (eurotan)
Izapidetzea	12,70	15,37
Ibilgailuak pisatzea	16,16	19,55
Matrikulatu aurretiko azterketa	43,80	53,00
Eskola-garraioaren eta adingabeen garraioaren azterketa espezifikoa	35,47	42,92
Azterketa partziala	Behar den aldizkako azterketaren % 50, gehienez % 100	
Joan-etorrien gastuak (kilometroko)	0,66	0,80
Lekualdatzeagatiko gutxieneko fakturazioa	13,41	16,22
Eginbidea	6,14	7,43

OHARRAK

1.– Matrikulatu aurretiko azterketarako adierazitako tarifari honako hauek gehituko zaizkio: ibilgailuaren kategoriaren arabera dagokion aldizkako azterketaren tarifa, eta, hala badagokio, erreformen erregularizazioa izapidetzeko tarifa eta ibilgailua pisatzeko tarifa.

2.– Eskola-garraioaren azterketa espezifikoa aplikatuko zaie garraio mota horretan alta emanda dauden M2 eta M3 kategorietako ibilgailuei, eta hori aldizkako azterketaren tarifari gehituko zaio.

3.– Eskola-garraioaren tarifa hori bera aplikatuko zaie eskola-garraioaren alta-erreformei, eta erreformen tarifari gehituko zaio.

4.– Ibilgailu arinen azterketetan, batez ere taxien kasuan, ez da eskola-garraioaren tarifa aplikatuko, baldin eta taxien eskola-garraioaren azterketa espezifikoak badira eta ibilgailuaren aldizkako azterketarekin batera egiten badira; aitzitik, aplikatu egingo da, eskola-garraioaren azterketa espezifikoa soilik egiten bada.